

Etikasi Programa 2019

XI. Legealdiaren hasieran Eusko Jaurlaritzak bere sail guztietan giza eskubideen ikuspuntua indartu nahi zuela agerian jarri zuen, bere ekintza guztietan modu orokor batean indartzuz. Honela, Legealdi honek daukan erronka partekatua giza eskubideei buruzko hezkuntza proiektu bat finkatzea izango litzateke, giza duintasunean oinarritua eta bakera, bizikidetzara eta elkartasunera bideratua betiere enpatiaren ikuspuntutik. Helburu nagusia, bizikidetzaren erronka berrien aurrean hezkuntza tresna hezigarriak sortzea eta interakzio sozio-hezitzaileak sendotzea da.

Etikasi Programa, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) eta Gazteria Zuzendaritzak sustatutako jarduera plana da, zinetan giza eskubideen eta duintasunaren bizipen hezitzailea bultzatzen den bakoitzak ulertu eta bizitu ondoren.

Programaren helburua

Programaren helburua etikari (etika ikasi) eta giza eskubideei buruz ikastea da, kontzentrazio esparrua izateagatik markatuta gelditu diren hiri edo Ipar Irlanda bezalako indarkeria gordina jasandako zonalde diren Europako leku ospetsuetara bisita hezitzaileak eginez. Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren ikuspuntutik, zuzenean eta pertsonalki leku horietan egoteak eta jazotako gertakizun traumatikoei buruzko istorioak ezagutzeak potentzial pedagogiko handia eta iraunkorra dauka. Mundua beste begirada batetik ikustea eta beste pertsonen lekuan jartzea ahalbidetzen digu.

Bisita hauek bost eguneko iraupena izango dute gehienez eta bi talderi eskainiko zaizkie:

- **Lehen taldea:** Lau eguneko Auswichtzerako bisitarako, **Batxilergoko 1. mailako ikaslezes osatutako taldeentzako** 30 plaza eskainiko dira gehienez.
- **Bigarren taldea:** Bost eguneko Belfastarako bidaiarako, Lanbide **Heziketako Erdi eta Goi Mailako heziketa zikloetako eta Unibertsitateko lehen mailako ikasleentzat** 30 plaza eskainiko dira gehienez.

Bidali guztietan Euskadiko hiru Lurralde Historikoetako, hau da, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako pertsona gazteen gutxieneko presentzia bermatzeko plazak gordeko dira, **etikasi programan** hiru lurraldeetako bakoitzeko gazteek parte hartu ahal izan dezaten.

Baldintzak

Deialdiak bi kategoria ditu, bakoitzerako baldintzak honakoak dira:

Lehen taldea: Kategoria honetara **EAE barnekoak** diren **ikastetxeetakoak** diren **Batxilerreko lehen ikasturtea ikasten dauden ikasleak** aurkeztu ahalko dira. Ikasleek giza eskubideen gaia garatzen duen **bideo labur bat egin beharko** dute. Ikastetxe bakoitzak, gehienez, bi eskaera aurkeztu ahal izango ditu deialdira (ikasgelako bat). Bideoek proposatutako gaiarekin lotura duten aspektuak aurkeztu beharko dituzte eta hauen gainean hausnartu, ondoren planteatzen diren galderei edo hauetako batzuei erantzunez:

- Zer dira giza eskubideak?
- Zure inguruan emandako giza eskubideen urraketaren bat identifikatu duzu? Zein?
- Zer esango zenuke dutela amankomunean giza eskubideen urraketa guztiek?

Bideoen ezaugarriek honako baldintzak bete behar dituzte:

- Originaltasuna eta sormena
- Euskaraz, gaztelaniaz edo ele bitan grabatzea. Gaztelaniaz badira, euskararen presentzia bermatu beharko da (azpтитuluetan edo animazioetan, esaterako).
- Gutxieneko iraupena 3 minutukoa izango da eta gehienez 6 minutukoa.
- YouTubek onartzen dituen formaturen batean egitea. Irudi eta soinu guztiak autore eskubide gabekoak izango dira.

Hainbat generotako bideoak onartuko dira: muntaketa fotografikoak, gidoi teatralizatuak, dokumentalak, ilustrazio animatuak, ikus-entzunezko poemak, kronikak, etab. Edozein gailu elektronikoa erabili ahalko da (argazki-kamera, bideokamera, mugikorra...), betiere bideoaren kalitatea bermatzen bada.

Ikasle-taldearen izen-ematea **otsailaren 22a arte** egin ahal izango da. Film laburra YouTubeera igo beharko da **2019ko martxoaren 11a arte**. Parte-hartzaileei helbide elektronikoa bat emango zaie eskaera bidal dezaten.

Bigarren taldea: Kategoria honetara 18 eta 30 urte arteko adin-tartekoak diren eta EAE barneko Lanbide Heziketako Goi edo Erdi mailako edo unibertsitateko lehen mailako ikasketak egiten dauden gazteak aurkez daiteke.

Ikasleek euren **ikasketen onartze-dokumentua** aurkeztu beharko dute **motibazio-gutun batekin batera**, non egiten ari diren ikasketan azaldu beharko dituzten, baita bizikidetzeta eta giza eskubideen alorrekin zerikusia duten euren interes, kezka, esperientzia eta motibazioak ere. Gutuna euskaraz zein gaztelaniaz idatzi ahal izango da. Azkenik, beharrezkoa izango da partaide orok giza eskubideei buruzko dokumentu baten gaineko idatzizko **hausnarketa bat** (gutxienez

900 hitz eta gehienez 1500 hitz luzerakoa) **egitea eta bidaltzea eskaera eta motibazio-gutunarekin batera.**

Ondorengo alderdiak balioetsiko dira:

- Etikasi programan parte hartzera motibatu duten arrazoiak zehaztea.
- Originaltasuna eta sormena
- Giza eskubideei buruzko hausnarketa kritiko eta pertsonala
- Ingeles FCE-B2 maila justifikatuko duen ziurtagiria

Programan parte hartzeko izen-ematea **otsailaren 22aren aurretik** egin beharko da. Izen ematen duten parte-hartzaileei helbide elektronikoko bat emango zaie eskaera bidal dezaten, motibazio-gutun eta testu-iruzkinarekin batera **2019ko martxoaren 11ren aurretik**.

Hautatze-prozesua

Bi hautatze-prozesu izango dira, bat kategoria bakoitzeko:

Lehen taldea (Batxiler 1eko ikasleak): Deialdiko oinarrietan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten film laburrak ondorengo balorazio-irizpideak kontuan izanda ebaluatuko dira:

- Sormena eta originaltasuna: 2 puntu
- Zuzenean giza eskubideen gaia jorratzea: 2 puntu
- Pertsona gazteen protagonismoa: 2 puntu
- Genero-ikuspegia: 2 puntu
- Kalitate teknikoa bigarren maila batean balioetsiko da: puntu 1
- Hezkuntza modelo hirueleduna jarraitzen duten ikastaroak balioetsiko dira: puntu 1

Ebaluazio epaimahaia parekidea izango da eta hezkuntza, giza eskubide eta kultura munduko pertsonaia ezagunek eta EGK-ko pertsona batek osatua egongo da. Epaimahaia eskuduna izango da deialdian zehazten diren baldintzak neurtzen ez dituzten film laburrak onartu ala deskalifikatzeko. Epaimahaiaren erabakiaren jakinarazpena publikoa izango da.

Bigarren taldea (Lanbide Heziketako Goi edo Erdi mailako edo unibertsitateko lehen mailako ikasleak): Hautagaien ebaluazioa bi fasetan egingo duen epaimahaia ezarriko da.

A. Hauek dira bigarren fasea pasatzeko ezinbesteko baldintzak:

- Ikasketen onartze-dokumentua (aipatutako zikloetako batean ikasten ari dela bermatzeko).
- Motibazio-gutuna
- Ingeles FCE-B2 maila justifikatuko duen ziurtagiria
- Giza eskubideei buruzko hausnarketa (5 puntu)

B. Ebaluazio-prozesuaren bigarren fasea **elkarrizketa pertsonal baten bidez egingo da, tribunal batean aurrean egingo dena eta, besteak beste, alor hauek kontuan izango direna:**

- Hautagaiaren motibazioa (puntu 1)
- Gaitasun pertsonalak (2 puntu)
- Ingeles ezagutza maila (puntu 1)

Ebaluazio epaimahaia parekidea izango da eta hezkuntza, giza eskubide eta kultura munduko pertsonaia ezagunek eta EGK-ko pertsona batek osatua egongo da. Epaimahaia eskuduna izango da deialdian zehazten diren baldintzak neurtzen ez dituzten film laburrak onartu ala deskalifikatzeko. Epaimahaiaren erabakiaren jakinarazpena publikoa izango da.

Ebazpena/Jakinarazpena

Hau izango da hautatze-prozesu osoko kronograma:

Lehen taldea

Izen-emate eskaera	2019ko urtarrilak 31 – otsailak 22
Film laburraren bidalketa	2019ko otsailak 22 – martxoak 11
Eskaeren zuzentzea	2019ko martxoak 11- martxoak 21
Ebazpena	2019ko apirilak 1
Bidaiaren aurretiko formakuntza	2019ko apirila - maiatza
Bidaia	2019ko ekaina
Ebaluazioa	2019ko iraila

Bigarren taldea

Izen-emate eskaera	2019ko urtarrilak 31 – otsailak 22
Motibazio-gutunaren bidalketa	2019ko otsailak 22 – martxoak 11
Eskaeren zuzentzea	2019ko martxoak 11- martxoak 21
Banakako elkarrizketak	2019ko martxoaren 27 eta 28
Ebazpena	2019ko apirilak 1
Bidaia aurretiko formakuntza	2019ko apirila - maiatza
Bidaia	2019ko uztaileko lehen hamabostaldia
Ebaluazioa	2019ko iraila

Hautatze-prozesua amaitzen denean emaitzak jakinaraziko dira, pertsona bakoitzari programan parte hartzeko bere eskaria onartua izan den ala ez esanda. Ebatziko duen organoa Euskadiko Gazteriaren Kontseilua izango da eta www.egk.eus webgunean publikatuko da.

Etikasi programan parte hartzeko hautatuak izan diren pertsonak ebazpena jakinarazten denetik 10 egun naturaleko epea izango dute, gehienez, programan euren parte-hartzea berresteko. Hau da, 2019ko apirilaren 11a arte.

Pertsona parte-hartzaileen onarpenak bidaia aurretik izango den formakuntza egitea dakar. Formakuntza honetan dokumental bat ikusi beharko dute eta hausnarketa bat egin, dena gida didaktiko baten laguntzarekin. Bisitaren ostean bigarren lan bat egin beharko da bisitatuko den leku europarrean eta Euskadin gertatutakoaren memoria kritikoek amankomunean dituzten elementuak identifikatzeko.

Programaren finantzatzea aurrekontuetako xedapenak ahalbidetzen duen urteko eskaintza eta deialdiaren bitartez gauzatuko da. Honen bitartez Batxillerreko 1. ikasturteko, Lanbide Heziketako Goi edo Erdi mailako edo unibertsitateko lehen mailako ikasleek memoriarekin ikuspegitik esanguratsuak diren Europako lekuak bost egunez bisitatzea ahalbidetuko da.